

ZORIONAK LOYARTE JAUNA-RI

¿Zer datorkit berriro
 nere belarrira,
 adimen naikitsua
 daukan zaiñ arira?
 Loyartek zorionak
 ekarriyak dira,
 bere sorterri maite
 eder Donostira;
 ta denak orlakuak
 arkiko balira,
 bilduko lituzteke
 gauz onak kabira,
 emanaz egintza on
 goitiyak argira:
 omen goitsu aundiyak
 ¿bereak aldira?
 jaso bitza nigandik
 alašen badira,
 Euskal-erriya goiki
 dediyen argira.

MANUEL URANGA

* * *

LOYARTE JAUNARI OMENA

Argiratutzen gauza ederrak
 beti oso egokiya;
 amaika aldiz goititzen dezu
 lumakin Euskal-erriya;
 maisu chit onak ezaguturik
 daukazun jakinduriya,
 orrenchengatik eman dizute
 orlako toki aundiya
 ezanaz bada au da guretzat
 biar dan burusariya.

CAYETANO S. IRURE